# CIBOURE PART EN LIVRE
# ZIBURU HARTU LIBURU

## 16/06 > 17/07

NOS PETITS ET GRANDS HÉROS - GURE HEROI TXIKI ETA HANDIAK



© CNL- Julien Neel pour Partir en Livre

MINISTÈRE DE LA CULTURE
*Liberté Égalité Fraternité*

WWW.MAIRIE-CIBOURE.FR
WWW.ZIBURUKO-HIRIA.EUS

www.partir-en-livre.fr

ZIBURU CIBOURE
MAIRIE – HERRIKO ETXEA

CNL CENTRE NATIONAL DU LIVRE

Partir en livre



# EDITO

Chaque été, les livres quittent leurs étagères pour aller à la rencontre des enfants, des familles et des curieux, au cœur de la ville. À Ciboure, cette invitation se renouvelle : lire, écouter, jouer, créer… autant de manières de faire vivre les histoires ensemble.

L'édition 2026 s'inscrit dans la dynamique nationale de Partir en Livre, qui célèbre cette année *Nos petits et grands héros*. Une thématique inspirante, qui traverse les âges et les imaginaires, et qui nous rappelle combien la littérature est peuplée de figures qui nous ressemblent, nous questionnent et nous font grandir.

Héros du quotidien ou personnages extraordinaires, aventurières intrépides, figures discrètes ou légendaires : ces récits nous accompagnent dès l'enfance. Ils nourrissent nos rêves, éclairent nos choix, et parfois même, nous donnent le courage d'agir. Car les héros ne sont pas seulement dans les livres : ils sont aussi ceux que l'on devient, chacun à sa manière.

À Ciboure, cette nouvelle édition mettra à l'honneur ces multiples visages du courage et de l'imagination, à travers des rencontres avec des auteurs et illustrateurs, des ateliers créatifs, des lectures partagées et des propositions hors les murs. Dans les écoles, sur les places ou au bord de l'eau, les histoires continueront de circuler librement, comme autant d'occasions de se rassembler.

**Nous vous souhaitons un très bel été de lectures, de curiosité et d'évasion.**

**Leire Larrasa,**
1ère adjointe en charge de l'éducation, de l'enfance, de la jeunesse et de la politique linguistique

**Et Emilie Dutoya,**
Adjointe en charge de la culture, du patrimoine et de la vie associative

# EN ATTENDANT CIBOURE

## Au mois de juin

### Les élèves de Ciboure sont invités à rencontrer des professionnels de la littérature !

*En cette fin d'année scolaire, les élèves des écoles de Ciboure sont invités à partager un moment privilégié avec des auteurs et acteurs du livre. Une occasion de découvrir leurs univers, d'explorer leurs ouvrages et d'échanger autour des métiers de l'écriture, de l'illustration et de l'édition, et de rencontrer celles et ceux qui donnent vie aux personnages et aux récits qui accompagnent leur imaginaire.*

*Ils auront ainsi le plaisir de rencontrer Gilles Freluche, et Idoia Rodriguez Mondragon.*



# PART EN LIVRE...



## Gilles Freluche

Illustrateur et designer graphique installé à Bordeaux, Gilles Freluche nourrit son travail de ses voyages et de ses découvertes. Entre design et illustration, il explore les formes, les couleurs et les récits, avec une envie constante de surprendre et de renouveler son regard.









## Idoia Rodriguez Mondragon

Docteure en sciences de l'éducation et autrice engagée, Idoia Rodriguez Mondragon s'intéresse à la place des stéréotypes dans la littérature jeunesse. Ancienne enseignante, elle développe aujourd'hui une réflexion sensible et accessible sur les représentations, l'égalité et la diversité.

# CIBOURE PART EN LIVRE /ZIBURU HARTU LIBURU

## du 16 juin au 01 août

*Horaires d'ouverture de la médiathèque*

**Exposition interactive**
***Qui a refroidi Lemaure ?***




Un polar immersif à vivre comme une véritable enquête, dans l'esprit du « cosy crime » (45 minutes).

Au 26 rue Dampierre, un jeune homme est retrouvé défenestré. Suicide ou meurtre ? Dans cet immeuble aux allures tranquilles, les cinq occupants affirment n'avoir rien vu...
À vous de démêler le vrai du faux.

Le légendaire inspecteur Séraphin Limier vous recrute comme stagiaire : muni d'une tablette interactive, vous explorez les lieux, collectez des indices, interrogez les suspects et construisez votre hypothèse. À vous d'endosser le rôle du héros de l'enquête.

Pensée comme une expérience ludique et immersive, cette aventure vous plonge au cœur d'une fiction dont vous devenez acteur. À vivre en solo, en duo ou en famille.

FR

- A partir de 12 ans
- Médiathèque François Rospide
- Sur réservation

*En partenariat avec la Biblio64*



## Mardi 16 juin

18h30

### Projection du concert dessiné *Le Petit Oiseau de Feu*

Sous le trait sensible de Camille Jourdy, de petits personnages prennent vie et nous entraînent dans l'univers foisonnant du célèbre conte russe. Porté par les musiciens de l'Orchestre de Paris, ce concert dessiné mêle images et musique dans une même narration.

Au fil des sonorités et des danses russes, troïkas, valses tsiganes, interprétées par un quatuor d'instruments inattendus, *Le Petit Oiseau de Feu* guide le spectateur à travers des royaumes fantastiques.

Une invitation à se laisser emporter par la force du récit et de la musique, au cœur d'un imaginaire peuplé de figures extraordinaires.

**Musiciens de l'Orchestre de Paris**
**Illustrations de Camille Jourdy**
**Concert enregistré à la Philharmonie de Paris le 16 juin 2021**

Tout public
Sans parole
Médiathèque François Rospide
Sur réservation

CITÉ DE LA MUSIQUE PHILHARMONIE DE PARIS
PYRENEES ATLANTIQUES LE DÉPARTEMENT
IBLIO 64

## Mercredi 24 juin

14h30



### Jeu de rôle
***sur la thématique de la mythologie***

Plongez dans l'univers des mythes et incarnez des personnages inspirés des grandes figures héroïques. Par équipes, les participants construisent une aventure collective, prennent des décisions et relèvent des défis au fil du récit.

Une proposition ludique pour explorer autrement les grands récits mythologiques.



FR

- Enfants et adolescents à partir de 9 ans
- Salle Sardara
- Sur réservation

# Vendredi 17 juillet

## 22h30

### Projection du film *Irati,* de Paul Urkijo Alijo




Plongé dans les mystères des Pyrénées du VIIIème siècle, *Irati* déploie une fresque épique inspirée de la mythologie basque. Un jeune homme part en quête de ses origines et s'aventure dans un monde peuplé de créatures, de dieux et de récits oubliés, guidé par la mystérieuse Irati.

Entre conte, aventure et fantastique, le film compose un univers visuel puissant, où se mêlent nature sauvage, croyances ancestrales et quête d'identité.

Un récit immersif et envoûtant, autour d'un héros confronté à ses racines et à son destin.

ESP
EUS

- Tout public avec avertissement
- Place du fronton
- Accès libre

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

CINÉMA LE SÉLECT SAINT-JEAN-DE-LUZ

# UNE JOURNÉE SUR LA THÉMATIQUE

## Bibliomobile

**Mercredi 17 juin**

*10h - 13h*

Le temps d'une matinée, la bibliomobile s'installe au cœur du quartier de Marinela et invite habitants et passants à une pause autour de la lecture et du jeu. Des transats sont mis à disposition pour profiter librement des ouvrages et des animations, dans un cadre propice à la découverte.



**Le mercredi 17 juin**, la place se transforme en espace de découvertes consacré aux figures héroïques, issues des récits littéraires, des mythes ou de l'imaginaire contemporain. Courageux, rusés, discrets ou extraordinaires, ces personnages traversent les histoires et continuent d'alimenter nos rêves comme nos récits.

LE 5eme ART LIBRAIRIE

À cette occasion, la librairie luzienne Le 5ème Art s'installe sur la place du centre commercial et propose une sélection d'ouvrages autour de ces figures emblématiques.

# DES HÉROS LITTÉRAIRES ET MYTHOLOGIQUES

Petits et grands pourront également imaginer, dessiner ou écrire le portrait d'une figure héroïque, réelle ou inventée, issue du quotidien ou venue d'ailleurs.



À 9h30 et 10h30, la conteuse Maddi Zubeldia présente Esku eta larru, un conte musical en euskara destiné aux enfants de 2 à 5 ans. Dans un décor inspiré de la cuisine, où les ustensiles prennent vie et les marionnettes sont fabriquées à partir de gants, les personnages quittent la maison pour partir à la recherche de la maman de Txiki.



EUS

0-6 ans
Centre commercial Marinela
Accès libre

# UNE JOURNÉE SUR LA THÉMATIQUE

## Mercredi 17 juin



### 18h30

**Spectacle**

***Caché dans son buisson de lavande Cyrano sentait bon la lessive,***
**de la compagnie Hecho en Casa**



Et si Cyrano devenait un héros d'aujourd'hui, sensible et profondément humain ?

Dans cette relecture poétique de Cyrano de Bergerac, trois comédiennes donnent vie,à travers un jeu de masques délicat, à un personnage touchant qui aime en secret et prête ses mots par générosité.

Dans un univers onirique inspiré d'un Japon imaginaire, le spectacle mêle humour et émotion, et nous rappelle que les héros ne sont pas toujours ceux que l'on croit : ils sont parfois ceux qui aiment en silence.

Un moment tout en douceur, à partager en famille dès 6 ans.

# DES HÉROS LITTÉRAIRES ET MYTHOLOGIQUES











FR

Tout public à partir de 6 ans

Cour de l'école Marinela (entrée par l'avenue Errepira)

Sur réservation

# UNE JOURNÉE SUR LA THÉMATIQUE

## Bibliomobile

**Vendredi 10 juillet**



***10h - 13h***

Le temps d'une matinée, la bibliomobile s'installe au cœur du quartier de Zubiburu, rue Koxe Basurco, et invite habitants et passants à une pause autour de la lecture et du jeu.
Des espaces confortables permettent de s'installer et de profiter librement des ouvrages et des animations.

En écho à la thématique des héros ordinaires, cette matinée propose de porter un regard attentif sur celles et ceux qui façonnent la mémoire du quotidien, à travers leurs parcours, leurs engagements et leurs récits.

L'exposition photographique Nos pas dans leurs pas / Gure urratsak haien urratsetan, créée en 2021 par la commune et Séverine Dabadie, met en lumière des habitants de Ciboure à travers leurs visages, leurs parcours et les lieux qui comptent pour eux. Elle est accompagnée de l'exposition sonore *Souvenirs & réflexions cibouriennes*, conçue par l'association La Grande illusion.

FR
EUS

- Tout public
- Rue Koxe Basurco
- Accès libre

# DES HÉROS ORDINAIRES




Les passants sont enfin invités à participer à la Balade de Kaskarot 2026 *Ciboure, mémoire vivante*, une promenade dans la ville, guidée par les voix et les récits de ses habitants.

Une invitation à lire, écouter et parcourir la ville autrement, à la rencontre de ses héros du quotidien.

## 11h et 18h30



### Tu te rappelles ?

***Déambulation contée autour de la mémoire de nos anciens et les rêves de nos jeunes***

À travers une déambulation contée, Julie Arnaud propose une traversée sensible entre mémoire et imaginaire. En écho à l'exposition photographique *Nos pas dans leurs pas / Gure urratsak haien urratsetan*, elle tisse des liens entre les souvenirs des anciens et les rêves des plus jeunes, donnant voix aux histoires qui circulent et se transforment avec le temps.

Ses récits, collectés, réinventés et partagés, prennent vie au fil du parcours et invitent à une expérience collective où se mêlent transmission, écoute et création.

Avec Les Histoires de Julie, le conte devient un espace vivant : un lieu où les récits d'hier rencontrent ceux d'aujourd'hui, et où chacun est invité à imaginer la suite.

FR

Tout public · Rue Koxe Basurco · Sur réservation

# UNE JOURNÉE SUR LA THÉMATIQUE

## Bibliomobile

**Samedi**
**11 juillet**



*10h - 13h*

Le temps d'une matinée, la bibliomobile s'installe au cœur du quartier de Socoa et invite habitants et passants à une pause autour de la lecture et du jeu. Transats et coins lecture invitent à s'installer librement pour découvrir livres et activités.

Cette matinée met à l'honneur les héroïnes, qu'elles soient issues de la littérature, de l'imaginaire ou du quotidien. Figures inspirantes, discrètes ou engagées, elles peuplent les récits et interrogent notre regard sur le monde.

Petits et grands sont invités à imaginer, dessiner ou écrire le portrait d'une héroïne, réelle ou inventée.

**À 10h30**, une balade lecture bilingue est proposée par l'association Libreplume.

Une invitation à écouter des textes autrement, au fil d'une promenade partagée.





FR
EUS

Tout public

Promenade le long de l'Untxin
*(côté chemin des blocs)*

Accès libre

# DES HÉROÏNES



16h - 19h

## Les 18 grigris de la Grande Illusion

Dans la caravane de La Grande Illusion, les enfants sont invités à une expérience sonore immersive autour de lectures participatives.

Plongés dans une pénombre douce, ils choisissent un objet parmi dix-huit, chacun porteur d'une histoire. Derrière un paravent, une régie radiophonique donne vie au récit : un enfant au micro, accompagné du réalisateur sonore Mario Bompart, compose en direct une lecture mêlant voix, bruitages et musique.

Allongés au centre de la caravane, les enfants écoutent cette création diffusée en stéréo. L'enregistrement est ensuite envoyé aux familles, comme le souvenir de ce moment partagé.

- Tout public
- place Koxe Arbiza
- Accès libre



# UNE JOURNÉE SUR LA THÉMATIQUE

## Samedi 11 juillet



*19h*

**Spectacle *Furtives*,**
**de la compagnie La Baleine Cargo**

Elles surgissent, traversent la ville et ne laissent rien tout à fait intact.

Dans ce spectacle de rue immersif, trois femmes investissent l'espace public et entraînent le public dans une traversée poétique, sensible et engagée. Elles chantent, dansent, slament, collent des mots et transforment la ville en terrain d'expression collective.

À la croisée du théâtre, de la danse et de la musique, *Furtives* interroge notre époque avec énergie et délicatesse, et fait émerger une figure du héros multiple, solidaire et en mouvement.

Un spectacle vibrant, accessible dès 10 ans.



FR

- Tout public à partir de 10 ans
- Place Koxe Arbiza
- Sur réservation

# DES HÉROÏNES





# INFOS PRATIQUES ET RÉSERVATIONS

Toute la programmation
de Ciboure part en livre – Ziburu hartu liburu
est gratuite.

# COMMENT RÉSERVER ?

**Par téléphone**

06 10 75 45 61
05 59 47 12 93

**Par email**

animations@mairiedeciboure.com
mediatheque@mairiedeciboure.com

**En ligne**

# NOUS SUIVRE SUR INTERNET ET LES RÉSEAUX SOCIAUX

www.mairie-ciboure.fr
cultureciboure
mediatheque.ciboure

Ville de Ciboure • 05 59 47 26 06 • mairie@mairiedeciboure.com
Directeur de la publication : Maire de Ciboure • Textes : Service culture, patrimoine et vie associative
Création : Service culture • Mise en page : Donibanekopi
Traduction : Argitxu Errotabehere - Zirtoka • Photos : Gilles Freluche - LouisTriol - Chloé Habasque - Mathieu Vouzelaud - Mapirudi - Ville de Ciboure
Impression : Donibanekopi • Ce livret est imprimé sur du papier recyclé.

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462 -
Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463

# CIBOURE PART EN LIVRE
# ZIBURU HARTU LIBURU

**16/06 > 17/07**

**NOS PETITS ET GRANDS HÉROS - GURE HEROI TXIKI ETA HANDIAK**



© CNL- Julien Neel pour Partir en Livre

MINISTÈRE DE LA CULTURE
*Liberté Égalité Fraternité*

WWW.MAIRIE-CIBOURE.FR
WWW.ZIBURUKO-HIRIA.EUS

www.partir-en-livre.fr

ZIBURU CIBOURE
MAIRIE – HERRIKO ETXEA

CNL CENTRE NATIONAL DU LIVRE

Partir en livre



# AURKEZPENA

Udaro, liburuek apalategitik ihes egiten dute haur, familia eta begiluzeengana joateko, hiriaren bihotzean. Ziburun, ekimena berritua da: irakurri, entzun, jolastu, sortu... ipuinak elkarrekin biziarazteko hainbat bide.

2026ko edizioa Frantzia mailako Partir en Livre ekimenaren ildotik doa, aurten *Gure heroi txiki eta handiak* ospatzen dituelarik. Adinak eta irudimenak iragaten dituen gai inspiragarriak gogoratzen digu zenbat literatura gure eite duten pertsonaiez osatua den, galdekatzen eta handitzen gaituztelarik.

Eguneroko heroiak edo ohiz kanpoko pertsonaiak, abenturazale beldurgabeak, pertsonaia isilak ala oroigarriak: ipuin horiek haurtzarotik ditugu bidelagun. Gure ametsak hazten dituzte, gure hautuak argitzen, eta, batzuetan, ekiteko kuraia ematen digute. Heroiak ez daudelako soilik liburuetan: bakoitza bere gisan bilakatzen garenean ere daude.

Ziburun, edizio berri horrek kuraiaren eta asmamenaren alderdi anitzak ohoretan ezarriko ditu, idazle eta irudigileekin antolaturiko topaketen, sorkuntza tailerren, irakurraldi partekatuen eta liburutegitik kanpoko proposamenen bitartez. Ikastetxeetan, plazetan ala ibai bazterrean, ipuinek libreki ibiltzen segituko dute, elkarretaratzeko hainbat aukera gisa.

**Irakurketaz, jakin-minaz eta ihesaldiz josiriko uda ederra opa dizuegu.**

**Leire Larrasa,**
Edukazio, haurtzaro, gazteri eta hizkuntza politikaren ardura duen kontseilari ordezkaria

**Eta Emilie Dutoya,**
Kultura, ondarea eta elkarte biziaren ardura duen auzapezordea

# ZIBURU HARTU LIBURU

## Ekainean

### Ziburuko ikasleak literatura munduko profesionalekin biltzera gomitatuak izanen dira!

*Ikasturte bukaeran, Ziburuko ikastetxeetako ikasleek abantailazko unea partekatuko dute liburuaren munduko idazle eta eragileekin. Haien munduak ezagutzeko, haien lana aztertzeko eta idazketa arloko lanbideen inguruan trukatzeko aukera, irudigintzatik argitaratzera, baita irudimena hazten duten pertsonaiak eta kontakizunak sortzen dituztenekin topatzeko aukera ere.*

*Horrela, Gilles Freluche, Idoia Rodriguez Mondragon eta Athizes argitaletxekoak ezagutzeko atsegina izanen dute.*



# BAINO LEHEN...

## Gilles Freluche

Gilles Freluche Bordelen jarria den irudigile eta diseinugilea da. Bere bidaiek eta ezagutzek hazten dute bere lana. Diseinua eta irudigintzaren artean, itxurak, koloreak eta kontakizunak ikertzen ditu, harritzeko eta bere behakoa berritzeko gogo aseezinarekin.











## Idoia Rodriguez Mondragon

Idoia Rodriguez Mondragon hezkuntza zientzietan doktore eta idazle engaiatua da. Estereotipoek gazte literaturan duten lekua galdekatzen du. Irakasle ohia da. Gaur egun, itxurapenak, berdintasuna eta aniztasunari buruzko gogoeta hunkigarri eta helgarria garatzen du.

## ekainaren 16tik agorrilaren 31ra

*Mediatekaren ordutegia*




### *Qui a refroidi Lemaure ?*
### erakusketa interaktiboa

Egiazko inkesta baten moduan bizitzeko polizia erakusketa, "cosy crime" delakoaren izpirituan (45 minutu).

Dampierre karrikako 26. zenbakian, leihotik "erori" den gizon gazte bat aurkitzen dute. Bere buruaz beste egin ote du edo hil ote dute? Lasai itxurako eraikin horretan, bertako bost bizilagunek diote ez dutela deus ikusi... Zure gain izanen da egia gezurretik bereiztea.

Séraphin Limier inspektore famatuak ikastun hartuko zaitu: tauleta interaktibo bat eskutan, tokiak miatuko, zantzuak bilduko, susmagarriak galdezkatuko dituzu eta zure hipotesia eraikiko. Inkestaren heroiaren jantziak beztituko dituzu.

Murgiltze esperientzia jostagarri baten gisan pentsatua den abenturak fikzioaren aktore nagusi eginen zaitu. Bakarrik, binaka edo familian bizitzekoa.

FR

12 urtetik goiti
François Rospide mediateka
Erreserbatuz

*Biblio64-rekin*

## AIPAGARRIENAK: ERAKUSKETAK, PROIEKZIOAK, ROL-JOKOAK...



# Ekainaren 16, asteartea

18:30

***Le Petit Oiseau de Feu***

**kontzertu marraztuaren emanaldia**

Camille Jourdyren marrazketa hunkigarriari esker, pertsonaia txikiak bizidun bihurtuko dira eta ipuin errusiar famatuaren mundu nasaira eramanen gaituzte. Parisko Orkestraren musikariek eramanik, kontzertu marraztu horrek irudiak eta musika nahasiko ditu, kontakizun beraren harira.

Laukote harrigarri batek emaniko Errusiako soinu eta dantzei jarraikiz, Suzko Txori Txikiak ikuslea erresuma fantastikoetan gaindi gidatuko du.

Kontakizunaren eta musikaren indarrari jarraikitzeko gomita, pertsonaia liluragarriz josiriko irudimenaren bihotzean.

**Paris Orkestraren musikariak**

**Camille Jourdyren marrazkiak**

**2021eko ekainaren 16an Parisko Filarmonian grabaturiko kontzertua**

Denentzat

Hitzik gabe

François Rospide mediateka

Erreserbatuz

CITÉ DE LA MUSIQUE PHILHARMONIE DE PARIS

PYRENEES ATLANTIQUES LE DÉPARTEMENT

BIBLIO 64

## Ekainaren 24, asteazkena



14:30

***Mitologiari buruzko***
**Rol jokoa**

Mitoen munduan murgildu eta pertsonaia heroiko famatuak mamitu. Taldeka, parte hartzaileek talde-abentura eraikiko dute, hautuak eginen dituzte eta erronkak altxatuko kontakizunaren hariari jarraikiz.

Proposamen jostagarria mitologiazko kontakizun nagusiak beste gisa batez aztertzeko.



FR

- 9 urtez goitiko haur eta nerabeentzat
- Sardara gela
- Erreserbatuz

## Uztailaren 17, ostirala

22:30

### Paul Urkijo Alijoren *Irati* filmaren emanaldia




8. mendeko Pirinioetako misterioetan murgildurik, *Irati* filmak euskal mitologian inspiraturiko fresko epiko bat aurkezten du. Gizon gazte bat bere jatorrien bila doa eta izakiz, jainkoz eta ahantziriko kontakizunez beteriko mundu batean sartzen da, Irati misteriotsuak gidaturik.

Ipuina, abentura eta fantastikoaren artean, filmak ikusmen-mundu indartsua osatzen du, non basa-izadia, aspaldi handiko sinesmenak eta nortasun bilaketa nahasten diren.

Murgiltze kontakizun liluragarria, bere jatorriari eta zorteari buru egin behar dien heroi baten inguruan.

ESP
EUS

Denentzat abisu batekin

Pilota plazan

Sarrera libre

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE

CINÉMA LE SELECT SAINT-JEAN-DE-LUZ

# LITERATURA ETA MITOLOGIA MUNDUETAKO

## Liburutegi ibiltaria

**Ekainaren 17, asteazkena**

10:00etatik 13:00etara

Goiz baten denboran, liburutegi ibiltaria Marinela auzotegiaren erdian jarriko da eta biztanleak eta iragaileak irakurketa eta jokoaren inguruko atsedenaldi batera gomitatuko ditu. Etzaulkiak ezarriko dira jendearen esku liburuez eta animazioez libreki goza dezaten, ezagutzarako egokia den giro batean.



**Ekainaren 17an,** asteazkena, plaza literatura-kontakizun, mito edo irudimen garaikideetako heroiei eskainiriko ezagutza eremu bihurtuko da. Izan bihoztunak, abilak, isilak edo gaitzekoak, pertsonaia horiek ipuinak iragaten dituzte eta hala gure ametsak nola gure kontakizunak hazten segitzen dute.

LE 5eme ART LIBRAIRIE

Kari horretara, Donibane Lohizuneko Le 5ème Art liburu saltegia merkataritza guneko plazan jarriko da eta ezaugarrizko pertsonaia horien inguruko obra sorta bat proposatuko du.

# HEROIEI ESKAINIRIKO EGUNA

Txiki eta handiek egiazko ala alegiazko heroi baten potreta asmatu, marraztu edo idazten ahalko dute, egunerokotasunetik edo beste leku batetik jalgia.



9:30ean eta 10:30ean Maddi Zubeldia kontalariak 2-5 urte artekoei zuzenduriko euskarazko Esku eta larru musika-ipuina aurkeztuko du. Sukalde itxurako leku irudikapen batean, non sukaldeko tresnak bizidun bihurtzen diren eta txotxongiloak esku larruz eraikiak diren, pertsonaiek etxea utziko dute Txikiren amaren bila joateko.



EUS

- 0-6 urte
- Marinela merkataritza gunea
- Sarrera libre

# LITERATURA ETA MITOLOGIA MUNDUETAKO



## Ekainaren 17, asteazkena

18:30



**Hecho en Casa konpainiaren**
***Caché dans son buisson de lavande Cyrano sentait bon la lessive,***
**ikusgarria**

Eta Cyrano gaur egungo heroia bihurtuko balitz, hunkigarri eta arrunt bihozbera?

Cyrano de Bergerac obraren berrirakurketa poetiko horretan, hiru antzezlek isilka maite duen eta bere hitzak eskuzabaltasunez eskaintzen dituen pertsonaia hunkigarri bat sortzen dute maska joko sotil baten bidez.

Alegiazko Japonia batean inspiraturiko mundu oniriko batean, ikusgarriak umorea eta zirrara nahasten ditu, eta heroiak ez direla beti uste ditugunak gogorarazten digu: gerta daiteke isilka maite dutenak izatea.

Une goxo-goxoa, familian partekatzekoa 6urtetik goiti.

# HEROIEI ESKAINIRIKO EGUNA











FR

Denentzat 6 urtetik goiti

Marinela ikastetxeko jostalekua
(sarbidea Errepira etorbidean)

Erreserbatuz

# Liburutegi ibiltaria

## Uztailaren 10, ostirala



## 10:00etatik 13:00etara

Goiz baten denboran, liburutegi ibiltaria Zubiburu auzotegiaren erdian jarriko da, Koxe Basurco karrikan, eta biztanleak eta iragaileak irakurketa eta jokoaren inguruko atsedenaldi batera gomitatuko ditu. Gune erosoek goxoki jartzeko eta liburuez eta animazioez libreki gozatzeko bidea eskainiko dute.

Heroi arrunten gaiaren ildotik, goiz horrek eguneroko oroimena moldatzen dutenei behako bat eskaintzea proposatzen du, haien ibilbide, engaiamendu eta kontakizunen bitartez.

Herriko Etxeak eta Séverine Dabadiek 2021ean sorturiko *Nos pas dans leurs pas / Gure urratsak haien urratsetan* argazki erakusketak Ziburuko biztanleak ditu argitan ezartzen, haien aurpegi, ibilbide eta leku kuttunen bitartez. Horrekin batera, La Grande Illusion elkarteak *Souvenirs & réfléxions cibouriennes* (Ziburuko oroitzapenak & gogoetak) soinu-erakusketa proposatuko du.

FR
EUS

Denentzat
Koxe Basurco karrika
Sarrera libre

# BURUZKO EGUNA




Iragaileak 2026ko Kaskaroten ibilaldian parte hartzera gomitatuak dira - *Ciboure, mémoire vivante* (Ziburu, oroimen bizia), biztanleen ahotsek eta kontakizunek gidaturiko ibilaldia hirian gaindi.

Irakurtzeko, entzuteko eta hiria beste gisa batez ikusteko gomita, eguneroko heroiak ezagutzeko asmoz.

## 11:00 eta 18:30



### Tu te rappelles ? *(gogoratzen zara?)*

***Ibilaldi kontatua gure adinekoen oroimenaren eta gure gazteen ametsen inguruan***

Ibilaldi kontatu baten bidez, Julie Arnaud kontalariak oroimena eta irudimenaren arteko zeharkaldi hunkigarria proposatuko du. *Nos pas dans leurs pas / Gure urratsak haien urratsetan* argazki erakusketaren ildotik, adinekoen oroitzapenak eta gazteen ametsen arteko lokarriak josten ditu, airean dabiltzan eta denborarekin aldatuz doazen ipuinei ahotsa eskainiz.

Bilduriko, berriz asmaturiko eta partekaturiko kontakizun horiek mamitzen dira ibilaldian zehar eta talde-esperientzia batera gomitatzen gaituzte, non transmisioa, entzutea eta sorkuntza nahasten diren.

Les Histoires de Julie ekimenari esker, ipuina eremu bizia bilakatzen da: atzoko kontakizunak gaurkoekin elkarretaratzen diren eta bakoitza segida asmatzera gomitatua den lekua.

FR

Denentzat | Koxe Basurco karrika | Erreserbatuz

# EMAZTE HEROIEI

## Liburutegi ibiltaria



## Uztailaren 11, larunbata

## 10:00etatik 13:00etara

Goiz baten denboran, liburutegi ibiltaria Zokoa auzotegiaren erdian jarriko da eta biztanleak eta iragaileak irakurketa eta jokoaren inguruko atsedenaldi batera gomitatuko ditu. Etzaulkiek eta irakurketa xokoek libreki jartzera gomitatuko gaituzte liburuak eta jarduerak ezagutzeko.

Goiz horrek emazte heroiak ditu ohoretan ezarriko, izan literatura, irudimena edo eguneroko mundutik jalgiak. Izan pertsonaia inspiragarriak, isilak edo engaiatuak, kontakizunetan ugari dira eta munduari eskaintzen diogun behakoa galdekatzen dute.

Txiki eta handiak egiazko ala alegiazko emazte heroi baten potreta asmatzera, marraztera edo idaztera gomitatuak dira.



**10:30etan**, Libreplume elkarteak irakurraldi-ibilaldi bat proposatuko du ele bitan.

Testuak beste gisa batez entzuteko gomita, ibilaldi partekatu batean zehar.



FR
EUS

Denentzat

Ibilaldia Untxin ibaiaren luzeran *(blokeen bidearen aldean)*

Sarrera libre

# BURUZKO EGUNA



LA GRANDE ILLUSION

*16:00etatik 19:00etara*

## La Grande Illusion elkartearen 18 kutunak

La Grande Illusion elkartearen karabanan, haurrak murgiltze eta soinu esperientzia batera gomitatuak dira irakurraldi parte hartzaileen inguruan.

Ilunpe goxo baten, hemezortzi gauzakien artean bat hautatuko dute, bakoitzak istorio bat dakarrelarik. Zuresi baten gibelean, irrati-kudeatzaile batek kontakizuna animatuko du: Mario Bompart soinu-zuzendariak lagundurik, haur batek ahotsa, soinu-efektuak eta musika nahasten dituen irakurraldi bat sortuko du zuzenean.

Karabanaren erdian etzanik, haurrek estereoan hedaturiko sorkuntza hori entzunen dute. Ondotik, grabaketa familiei bidalia izanen zaie, une partekatu horren oroitzapen gisa.

- Denentzat
- Koxe Arbiza plaza
- Sarrera libre



# Uztailaren 11, larunbata



## 19:00

**La Baleine Cargo konpainiaren**
***Furtives* ikusgarria**

Tupustean agertzen dira, hiria zeharkatzen dute eta ez dute deus uzten guziz zen bezala.

Karrikako murgiltze-ikusgarri horretan, hiru emazte eremu publikoaz jabetzen dira eta publikoa zeharkaldi poetiko, hunkigarri eta engaiatu batean parte harrarazten dute. Kantatzen, dantzatzen, deklamatzen dute, hitzak itsasten dituzte, eta hiria talde adierazpen eremu bihurtzen dute.

Antzerkia, dantza eta musikaren artean, Isilekoak ikusgarriak gure garaia galdekatzen du kemenez eta sotiltasunez, eta beti mugitzen den eta elkartasuna erakusten duen heroi anitzaren figura agerrarazten du.

Ikusgarri zirraragarria, 10 urtetik goiti ikusgai.





FR

- Denentzat 10 urtetik goiti
- Koxe Arbiza plaza
- Erreserbatuz

# BURUZKO EGUNA





# ARGIBIDE BALIAGARRIAK ETA ERRESERBATZEA

Ciboure part en livre – Ziburu hartu liburu
jaialdiaren ekitaldi guziak urririk dira.

# NOLA ERRESERBATU?

**Telefonoz**

06 10 75 45 61
05 59 47 12 93

**Mezu elektronikoz**

animations@mairiedeciboure.com
mediatheque@mairiedeciboure.com

**Linean**

# SEGI GAITZAZUE INTERNETEN ETA SARE SOZIALETAN

www.mairie-ciboure.fr
cultureciboure
mediatheque.ciboure

Ziburuko hiria • 05 59 47 26 06 • mairie@mairiedeciboure.com
Argitalpen zuzendaria: Ziburuko auzapeza • Testuak: Kultura, ondarea eta elkarte bizitza zerbitzua
Sortzailea: Kultura zerbitzua • Liburuxkaren apailatzailea: Donibanekopi
Itzulpena: Argitxu Errotabehere - Zirtoka • Argazkiak: Gilles Freluche - LouisTriol - Chloé Habasque - Mathieu Vouzelaud - Mapirudi - Ville de Ciboure
Inprimaketa: Donibanekopi • Liburuxka hau birziklatutako paperean inprimatua izan da.

Licence 1 : PLATESV-D-2022-006462 -
Licence 2 : PLATESV-D-2022-006464 - Licence 3 : PLATESV-D-2022-006463